

**2020ko MARTXOAREN 9an UDALBATZARRAK EGINDAKO EZOHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **3 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko martxoaren 9an, goizeko bederatziak eta laurdenetan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iker Basurko De Miguel jn. Leire Arana Olabarrieta and. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Xabier Etxaburu Elu jn. Gloria Vazquez Herranz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Ion Arozena Eizagirre jn. Begoña Olaizola Elordi and. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Patxi Elola Azpeitia jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, hauteskunde-mahaietarako kideak izendatzeko presa.

Ondoren, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- HAUTESKUNDE-MAHAIETARAKO KIDEAK IZENDATZEA

Espedientea: 2020IE150001

2020ko apirilaren 5ean Eusko Legebiltzarrerako egingo diren Hauteskundeetarako mahaiak osatuko dituzten mahaikideak izendatzeko zozketa hasi aurretik, **idazkari** andreak irakurri egin du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak prestatutako txostena.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorriari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalek izendatu behar dituzte 2020ko apirilaren 5ean Eusko Legebiltzarrerako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak.

26. artikulua

1. Mahaiak osatzea udalen esku dago, Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen gainbegiradapean.

2. Mahai bakoitzeko mahaiburua eta mahaikideak zozketa publiko bidez izendatzen dira, dagokion Mahaiko boto-emaileen zerrendan sartutako pertsona guztien artetik aukeratuta; irakurtzen eta idazten jakin behar dute, eta hirurogeita hamar urtetik behera eduki. Dena den, hirurogeita bost urtetik gorakoek beren ukoa adierazi ahal izango dute zazpi eguneko epean. Mahaiburuak Batxilertitulua edo Bigarren mailako Lanbide Heziketakoa eduki behar du, edo, subsidiarioki, Eskola Graduatua edo baliokidea.

3. Berdin jardungo da Mahaiko kide bakoitzarentzako bi ordezeko izendatzeko.

4. Deialdia egin eta hurrengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean egingo dira goian adierazitako zozketak.

Guztira 28 mahai osatuko dira, barrutiz barruti zein sekzioz sekzio honela banatuta:

Barrutia Sekzioa	Mahaia	Hautesleak
1-1	A	784
1-1	B	743
1-2	A	526
1-2	B	505
1-3	A	473
1-3	B	537
2-1	A	643
2-1	B	603
2-2	A	775
2-2	B	731

2-3	A	742
2-3	B	801
2-4	A	710
2-4	B	668
2-5	A	573
2-5	B	632
2-6	A	680
2-6	B	720
2-7	A	522
2-7	B	469
2-7	C	324
2-8	A	785
2-8	B	793
2-9	A	702
2-9	B	749
2-10	A	535
2-10	B	534
2-11	U	919
Guztira.....		18.178

Zozketa ausazko moduan egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) “CONOCE” programaren bidez.

Mahaiburua, 2 mahaikide eta horietako bakoitzaren 2 ordezeko izendatu beharra dago mahai bakoitzerako. Hau da, mahai bakoitzeko 9 pertsona. Zarautzen guztira 252 lagun behar dira.

Hala ere, “CONOCE” aplikazioak zozketan aurreikusita dauka postuak betetzeko beharra egon daitekeela, aurkezten diren aitzakiak onartzen badira.

Zozketan bertan kargu bakoitzeko bederatzi ordezeko izendatuko dira hutsunerik gertatzen diren kasuetarako.

Ondoren, eta ezarritako formaltasun guztiak beteta, datorren apirilaren 5ean hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketa egin da.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, goizeko bederatziak eta hogeita bostean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.